



Carracedo urnietarra, Lemanseko 24 ordutan

Bimtrazer Fly taldearekin parte hartuko du, larunbat honetan. 15:00tan hasiko da eta DAZN eta Eurosport kateetan ikusi ahal izango da proba / 8-9

Ostalaritza ekimen berriak

Xarmaren irekiera, eta Ongi Etorri eta Babexaren berrabiatzeak Andoainen / 5



OSTEOPATIA - FISIOTERAPIA

Onintza Alkorta
N° COFPV zbk.: 2209

Tel.: 943 966543 / 613 886977
Emaila: onintza_osteofisio@hotmail.com
Idiazabal kalea 24, beheka 6. 20130 URNIETA

Gurezirkua.eus
webgunean eros
daitezke Andoaingo
emanaldietarako
sarrerak / 15

Oroituz: belaunaldiz
belaunaldi,
frankismoaren
biktimen aldeko
oroimena / 3

Robyn Hitchcock
Britainia Handiko
kantaria Basteron
ariko da, ostiral
honetan / 14

Errigora: bederatz
milatik gora
kontsumitzailek
Errigorarekin
bat egin dute / 2

www.aiurri.eus

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



- Iritzia
- Postontzia

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



KOMUNITATEA

ERRIGORA NAFARROA

Bederatzi milatik gora kontsumitzaile Errigorarekin bat

Martxoaren 9tik 29ra bitartean ehunka herritan Errigoraren Nafar hegoaldeko uzta Eskutik eskura udaberriroko kanpaina gauzatu dugu. Pozteko emaitzak eman ditu: 9000 eskaera baino gehiago eta ondorioz, 120000 litro olio eta 26000 sorta edo lote iritsiko dira hurrengo asteetan eskutik eskura, Ager eremuko baratzetatik Euskal Herri osoko sukaldeetara. Eskerron eta zorion hitzak agertzea baizik ez zaigu gelditzen:

Mila esker eta zorionak Errigoraren kanpainarekin bat egin dugun guztioi! 9.000 eskaera baino gehiago jaso dugu aurtengoan. Mila esker, bihotzez, Nafarroa hegoalde eta erdialdeko uztari 9.000tik gora sukaldetako atea zabaltzeagatik. Eta, era berean, zorionak, uzta jasotzearekin erein ere egingo

baitugu: kontsumitzaileen partetik jasotako babes izugarria ekoizpenaren eremuan pausu berriak emateko akuilu izango da. #ErrigoraBaliok identifikatzailea aurkeztu genuenean esan genuen bezala, berme-zigilu berria hamarkada bateko lanaren emaitza da, baina bide berri baten abiapuntu ere izan nahi du. Oinarriak finkatuta, erronka berriei aurre egiteko tresna. Horretarako Errigora Baliokin bat egiteko deia egin genuen, eta erantzunak berriz ere hunkitu gaitu. Bereziki hunkitu gaitu, ziurgabetasuna eguneroko ogi dugun garaiotan: elikadura-burujabetzara eramango gaituen bide luzea argitzeko 9.000 su txiki baino gehiago piztu zaizkigu. Errigorako boluntario eta Errigorako ekoizleok 9.000 arrazoi berri

baino gehiago dugu ausardiaz jokatzeko eta testuinguru sozial eta klimatikoari, auzolanean, tamainako pausuz erantzuten saiatzeko.

Urtetik urtera handiagoa da Errigoraren komunitatearen dirdira. Baina ez gero eta gehiago garelako soilik, baizik eta urtetik urtera kitzikagarriagoa delako gure ekoizleen adorea, gure boluntarioen kemena eta gure kontsumitzaileen konpromisoa. Biba gu!

Honezkero, ekoizleak hasi dira herri bakoitzeko plazara helduko diren kutxa eta bidoi palet-ak prestatzen, auzolanean. Eta, apirilaren 20tik aurrera, auzolanean berriro, herriz-herriz helduko dira kamioiak tokian tokiko boluntarioek jaso eta konkontsumitzaileen eskuetarainoko azken entregak antolatuzko.

POSTONTZIA

TKE-KO ENPRESA BATZORDEA ANDOAIN

Jendaurreko aurkezpena

TKEk, puntako teknologia eta lan kualifikatua gauzaten duen enpresatzat du bere burua. Lan-baldintzek, ordea ez zuten horrekin bat egiten eta horrek eraman gaitu borrokara.

Tentsio handiko negoziaketan eta lau greba egun luze egin ostean, langileak batzea eta antolatzea lortu dugu. Horregatik, borrokaren ondorioz erdietsi dugun akordioarekin pozik gaude: akordio honekin langileen baldintza ekonomikoak hobetzen dira eta urteko lan orduak murriztea lortu dugu aurrez galdutako hainbat eskubide berreskuratzearekin batera. Horretaz guztiaz gain, aldi baterako langileen kopurua jaisteko konpromezua, lan egutegia zein ordutegiak adosteko eta aurre erretiroari dagozkion akordio

desberdinak aztertze bilerak berri batean akordio hau borobiltzeko data zehaztu da.

Esan behar dugu lorpen hauek baino garrantzitsuagoa dela lantokian sortu den borrokarako grina eta batasuna. Badakigu bide luzea dugula aurretik baino akordio honekin lan-baldintzak izugarri hobetu ditugu eta, beraz, pozik agertzen gara.

Lorpen hori ezinezkoa izango zen negoziaketa guztian lehen lerroan egon diren langileengatik izango ez balitz. Horregatik guztiagatik, zuena da garaipena!

**LEHEN LERROAN
EGON DIREN
LANGILEENGATIK
EZ BALITZ, LORPENA
EZINEZKOA LITZATEKE**

GORA ETA BEHERA

**Leihoak
hautsita**

Apirilaren 7an Erroitz eta Manuel Plazaola kaleetan hainbat ibilgailuren kristalak hautsita agertu ziren.



AIURRI



IRITZIA

"OROITUZ, ANDOAINEN" ELKARTEA ANDOAIN

Belaunaldiz belaunaldi, frankismoaren biktimen aldeko oroimena

Behin XXI. mendean sartuta, urtez urte egin izan da frankismoaren biktima andoaindarraren aldeko oroimen ekitaldia, Alfaro parkeko "Goiztirian, arimaren garrasia" eskulturaren aurrean. Apirilaren 15ean izango da aurtengoa.

Iazko ekitaldiko argazkia ikusiz gero, eta lehen lerroko aukietan nortzuk eseri ziren erreparatzen badugu (alegia, frankismoaren hatzaparririk hiltzaileena zuzenean eta etxean sufritu zuten pertsonentzat gordetako lekua), bada, agudo ohartuko gara belaunaldi bat joan zaigula. Esanguratsua iruditzen zaigu datu hori, maila pertsonalean zein memoria historikoaren aldeko berreskurapenaren azken urteetako ibilbidean.

Bizi-legeak aginduta, mingarria egin zaigu ikustea, urtez urte, nola gutxitzen joan den gonbidatu berezi horien presentzia; batzuk hiltzen joan direlako, eta besteak (bakan batzuk), bizirik segi arren, fisikoki jada gauza ez direlako Etxeberrietako zelai horretara hurbiltzeko.

Izan ere, 2022ko argazki hartan, soilik bi pertsona topa daitezke 1936ko belaunaldi hartako kide gisa: Rafael Benitez Anguas eta Jose Aldasoro Gonzalez. Biak ere, omenaldiaz geroztik, hurrengo hilabeteetan hil ziren, ekainaren 18an bata eta abuztuaren 14an bigarrena.

Belaunaldi enblematico oso baten giza galera horren haritik, bost bat gogoeta iradokitzen zaizkigu, labur aipatuta:

Lehena. Horiei guztiei, frankismoaren "biktima" izatea beraiek hautatua ez izan arren, halakotzat ere jo behar ditugu, eta gorazarre egin. Zutik, errespetuz eta duintasunez eutsi zioten beren familiarren



2019ko ekitaldiko irudia. Lehen lerroan, frankismoaren lehen kolpe latza pairatu zuen belaunaldia. AIURRI

oroitzapenari, eta toki berezia hartuko dute modu sinbolikoan bada ere, aurtengo zen etorkizuneko ekitaldietan. Aurreko urteetan joan zaizkigun antzeko gainerako biktimek legez.

Bigarrena. Benitezen, Aldasororen eta beren belaunaldiko hamaika kideen biografia arakutzen hasita, nor bere aldetik, nekez topatuko ditugu. Txoratuta gauzkatzen Netflixeo modako serieak baino askoz zirrarragarriagoak.

Biren bizipenek, hain justu, beren garaiko biktima gehien-gehienena islatzen gaituzte. Antzekotasuneko gertakizun krudelak jasan behar izan zituzten haurtzaroen, edonor betirako traumatizatuta geratzeko moduan. Biek ere familia markatuko kideak izan ziren, eta, "gorri" edo "separatista" gisa etsai estigmatizatuak izaki, bazterkeria soziala modurik krudelenean jasan behar izan zuten. Larrutan ikasi zuten zer den guztien aurrean lotsagarri eta

barregarri geratzea, nahiz eurek ezer ez egin.

Rafael Benitezi, eskola kumea izanik, ikastetxean, "¡Un dos tres, Rafael rojo es!" oihu eginez egiten zioten burla ikaskideek, frankismoaren adoktrinamendua irakaskuntzara iritsia baitzen ordurako. Kalera irteten zenean, berriz, herriko jauntxo nazional-katolikoek alkandora urdina janztera eta bandera espainoleko besokoa eramatera derrigortu nahi izaten zioten; Nolanahi ere, haien esanetara, makurtu nahi ez-eta, urte bete egin zuen jolastera irten ezinik. Beldurak akabatzen geratzen zen etxe zuloan.

Joxe Aldasorok, bere aldetik, eskolan jasaten zuen, herriko eskolan, doktrina emateko orduan, gelako ikasleak On Konstantino apaizaren aurrean jartzen zituzten. Banan-banan, izen-abizenak eta ze auzokoak ziren adierazi beharreko unean, "Hijo de rojillos!" oihu egin, eta zarta! masailekoa ematea, bat izaten zen. Inpunitate osoz.

Hirugarrena. Eraikitak eraiketa, eta traumak trauma, harrigarria da Benitez eta Aldasoro zenbateko tinkotasunez saiatu izan ziren, beti, frankismoaren biktimen oroimenari eusten, euren bizipenaren gaineko testigantza emanez, eta beren senideen zein beste milaka eta milaka biktimen aldeko ekimen publikoetan parte hartuz. Andoainen azken bi hamarkadetan egin diren omenaldi publikoetan, hantxe egon dira, umil-umil, beren anaiaren edo aitaren oroitzapena bizirik mantentzen. Mendekurik ez dute eskatu. "Egia, justizia eta aitormena", besterik ez.

Laugarrena. Egiarik jakin gabe, justiziarik ezagutu gabe, joan dira; ez 40 urteko frankismoan ezta 45 urteko demokrazia formalean ere. Beste milaka eta milaka biktimen antzera. Frankismoak berak baino urte gehiago dituen demokrazia formal honek, klase politikoak ahaztuta eduki ditu, nahiz eta hitzetik hortzera biktimen aldeko

diskurtso barru-hutsak adierazi, eta nahiz eta ahal izan duten guztietan ederki saiatu biktimen ondoan agertzen komunikabideen argazki eta fokoen aurrean.

Egun, Memoriaren legea onetsi dute Madrilen, eta onestekoak dira Gasteizen. Merkezurean eta biktimen presio sozialak eta iraganarekiko kontzientzia txarrak derrigortuta egindakoak dira, eta esaterako, justiziaren atala ez dira ukitzera ausartu. Nondik gatozen kontuan izanda aurrerapausotzat hartu behar diren arren, etsipenez eta amorrus aitortu behar dugu, beranduegi datozela.

Beranduegi Aldasororentzat, Benitezentzat eta frankismoak aplikatu zuen disidentziaren suntsiketako politikaren biktimentzat nahiz hartatik irau-bizi ostean demokrazian gure artean bizi izan diren makina bat belaunaldientzat (tartean alargunak, umezurtzak...). Injustizia itzelagorik ba ote?

Bosgarrena. Ebidentzia historiko bat: belaunaldiz belaunaldi eta eskuz esku igaro beharra dago lekukoa, baldin eta herri batek bere memoria bizirik gorde nahi badu. Datorren larunbatean, Alfaro parkean egingo den ekitaldia, eta antzekoak, aukera politak izan daitezke gure aurrekoen lekukoa hartzeko. Zutik mantentzeko frankismoak erail, atxilotu, exiliora bidali, genero indarkeria sufriarazi, langile batailoietan esklabu gisa esplotatu... zituen pertsona haien oroimena ez ezik, frankismoaren tunel ilunetik bizirik irten ondoren, memoria transmititu diguten herrikide guzti horien oroimena ere. Zera adierazi nahi da, funtsean: "ez ditugu ahaztuta, eta etorkizunean ere ez ditugu ahaztu nahi".

Zarataren aurkako panelen harira, agerraldi bateratua

Lanen lizitazioa eta lurren lagapena bertan behera uztea eskatu dute ikastolak eta plataformak



Plataformako eta Aita Larramendi ikastolako ordezkariak. AIURRI

Erredakzioa ANDOAIN

Aita Larramendi Ikastola aurrean, N-1 errepidearen parean, panelak jartzeko lanen lizitazioa eta lurren lagapena bertan behera uztea eskatu dute ikastolak eta C2ak kaltetutakoaren platafor-

mak. Apirilaren 3an egin zuten agerraldia, Kontzejupean.

Aita Larramendi ikastolaren eskaera

Gipuzkoako Foru Aldundiko diputatuen kontseiluari hartu-

tako erabakiak bertan behera uzteko eskatu dio, formalki. Trazadura proiektu berria idatzi behar denez, alegazioak kontutan harturik, ikastolak ulertzen du oraindik ez dagoela pantailak C2aren arabera jartzeko proiektu formalik. Beraz, obren lizitazioa bertan behera uztea eskatu dute.

C2ak kaltetutakoaren plataformaren eskaera

Aita Larramendi ikastola parean panelak jarri ahal izateko, Andoingo Udalak lurren lagapena egin behar dio Foru Aldundiari. Eta plataformako kideek lurrik ez lagatzeko eskaera egin diote Udalari. Zehazki, Andoingo alkateari eta Tokiko Gobernu Batzarrari (PSE-EE eta EAJ-PNV). Eta arrazoiak formalak da. Plataformaren zerbitzu juridikoen arabera, lurren lagapenaren erabakia plenoan hartu behar da. Eta Andoainen ez da horrelakorik egin. Erabakia azaroan hartu zuen Tokiko Gobernu Batzarrak, eta ez plenoak. Beraz, prozedura arrazoiak argudiatuta, lurren lagapena bertan behera uztea eskatu dute.

Aberri eguna, berezia

Andoingo EAJ-PNVk Aberri Eguna ospatu zuen Batzokian: "Urteroko ohiko ospakizunez gain, aurtengoan protagonista berezia izan da, 100 urte betetzera doan Joxe Manuel Erkizia afiliatua. Omenaldi beroa jaso du bertaratutako alderdikide eta lagunentzat". Apirilaren, ehun urte beteko ditu. Aste batzuk atzera, Ontza elkarteko bazkideek ere omendu zuten.



EAJ



AIURRI

Erreka jaitsiera

Apirilaren 29an Eguzkik antolatutako erreka jaitsiera ospatuko da. 16:00tan jasoko dira baltsak Bekoplazan eta, ondoren, Olazarrera igoko dira. 16:45ean ekingo diote jaitsierari eta 17:30ak aldera Santa Krutz zubira iristea aurreikusten dute. Informazio gehiago eskuragarri izango da apirilaren 19an egingo duten bilera irekian, Urigainen.

Erraldoi bikote berria

Andoingo Udalak "Juan Legarra Etxebeste eta Cecilia Legarra" erraldoi bikotearen gomazko figurak sortu ditu, eta 30 eurotan salgai daude Bastero Kulturguneko lehiatilan eta herriko hainbat saltokitan. Juan Legarra Etxebeste eta Cecilia Legarra erraldoien gomazko figura berriak dira. Azelaingo bikotea osatzera datoz.



UDALA



AIURRI

Saria, Shernan kolektiboari

Andoainen egoitza duen Shernan Creative Collective sormen aholkularitza-entresak saria jaso du 2023ko Sormeneko Sari Nazionalen. Santi Hernandez Shernaneko sortzaile eta arduradunak poza agertu du, jasotako sariarekin: "Harrotasun izugarria da tokiko sormenaren pultsua bizirik mantentzea eta merkatu askoz boteretsuagoetako lan onenekin lehiatzea".



Santa Krutz jaiak
www.aiurri.eus webgunean

Albisteak, agenda, argazki-bildumak, bideoak...

JAIK IRISTEAR DIRA

w w w . a i u r r i . e u s

IRITZIA

HERRITAR TALDEA ANDOAIN

Buruntza, bere esanahia erresistentzian

Antifaxistak sentitzen garen zenbait herritarrek ekintza sinboliko inklusiboa egin dugu Buruntzako tontorrean. Zehazki, gailur horretako mastan aurretik jarritako ikurrinari beste hiru bandera gehitu dizkiogu, zenbait egunetan iraun dezaten: errepublikarra, komunista eta anarkista.

Gure gertuko historian, Buruntza mendiak hainbat ideologietako eskualdeko herritarrek faxismoari 1936ko abuztuan eskaini zioten erresistentzia sinbolizatzen du, hain zuzen, erresistentzia, nori eta kolpe militar odoltsua lehenbizi eta ondoren

diktadura ezarri zituen faxismoari. Armamentu gutxirekin eta prestakuntza militar eskasa eduki arren, Belkoain edo Txaldatxurreko defentsa-lerroekin batera, tropa faxista gerarazi zuten hamabost egunez, abuztuaren 16tik 31ra; horri esker, lortu zuten ez Donostia eta ezta Gipuzkoa osoa ere ez zitezen faxismoaren esku erori denboraldi batez.

Abertzaleek, ezkerreko errepublikanoek, komunistek eta anarkistek bat egin zuten zilegitasun demokratiko errepublikarra eta askatasun, justizia eta berdintasunaren baloreak defendatzeko orduan,

Buruntzako bezalako defentsa-lubakietan.

Nork bere bandera haizatuz jardun zuen, eta, beraz, gure historiarekin zintzo jokatu nahi badugu eta aurreko belaunaldi antifaxistei aitortza publikoa egin nahi badiegu, lau banderak mastan ordezkaturata egotea da zilegi. Ez dago orainik, memoriarik gabe!

**ABERTZALEEK,
ERREPUBLIKANOEK,
KOMUNISTEK ETA
ANARKISTEK BAT EGIN
ZUTEN BURUNTZAN**

Astearte iluntzean jarri zituzten bandera ezberdinak, Buruntzako ikurrinari eusten dion mastan. AIURRI

**Egunean eguneko
albisteak sarean**



1936ko otsailean Etxeberrietan. (1) Teodoro Txopeitia Beuba; (2) Alfredo Alvarez San Sebastian; (3) Lorentzo Galartza Sarasola; (4) Nikolas Agirre Garmendia; (5) Alberto Urrutia Genua; (6) Bautista Zabala Etxebeste; (7) Jose Erauskin Soroa; (8) Jose Inazio Peruarena Rekalde; (9) Inazio Arratibel Fernandez; (10) Ramon Salazar Gurrutxaga; (11) Patxi Arratibel Beldarrain; (12) Luis Zabala Etxebeste; (13) Ramon Zelarain Garmendia; (14) Teofilio Usandizaga Iztueta; (15) Mariano Fernandez Mailan; (16) Jose Arratibel Fernandez; (17) Jose Mari Arrieta Gorosarri. PILAR TXOPEITIA

Xabier Lasa ANDOAIN

Ehun urte bete dituen Euskalduna futbol taldearen historia poztasunezko eta tristeziatzko uneez josita dago, kirol-lehia izan baitu zutarri nagusi. Atal historiko anitzez osatzen da Euskaldunaren ibilbide historikoa, baina, ziurrenik, ez da topatuko 1936ko giza-tragediaren parekorik. Hain zuzen, 1935-1936 denboraldian, Gipuzkoako hirugarren mailako txapelketa irabazi zuen taldeak jasan zuena hartu behar da gogoan: taldeko zazpi jokalarik bizia galdu zuten, 1936ko uztailearen 18ko kolpe militarren ostean piztu zen gatazka belikoa zela medio.

Argazkia, 1936ko otsailearen 9an hartuta dago, Etxeberrietako zelaian, Euskaldunak Donostiako Eusko Gaztedi taldeari 8-0 irabazi eta gero. Pozik ageri dira egun hartan jokatu zuten nahiz

1936ko kolpe militarrek zapuztu zuen belaunaldi bikaina

FUTBOLA 1936ko otsailean Gipuzkoako hirugarren mailako ligako txapelketa irabazi zuen Euskalduna futbol taldeak. 1936ko uztailearen 18an izan zen kolpe militarra. Gerrak belaunaldi bikainaren etorkizuna zapuztu zuen

plantilla osatzen zuten gainerako jokalariek, eta ez da gutxi-rako, izan ere, garaipenari esker, Gipuzkoako hirugarren mailako ligako txapelketa irabazi zuen Euskaldunak.

Ehunka herritar bildu zen Etxeberrietan igande hartan, jakitun izanik zer eragin zezakeen norgehiagokaren emaitzak. Dena esatera, arrazoi bikoitza zuten andoindar futbol zaleek pozez txoratzen egoteko: atzera joz gero, 1926-1927ko denboraldia jokatu ostean, Euskaldunak ezin izan zuten urtetan talderik osatu Gipuzkoako lehiaketetan parte hartzeko. Halako batean, baina, 1935-1936ko denboraldian lortu zuen berriro Andoain ordezkaturako zuen talde ofiziala edukitzea, gogotsu zetorren belaunaldi gazte bati esker.

Heroi gisa hartu zituzten Euskaldunako jokalariek gazteak he-

rrian, 1936ko otsailaren 9an. Eta horrela, partidua amaitu eta gero, ehunka andoaindarrek herriko kaleetan barrena ospatu zuten garaipena. Etxeberrietako zelaitik kalejiran irten baitziren, jokalariai aurretik zituztela, eta Joxe Mari Oartzabalaren akordeoak haizatzen zituen doinu alaiaren erritmo bizira.

Belaunaldi garailea zapuztu zuen kolpe militar odoltsuak

Errepublikaren aro historiko demokratikoaren etorrerak gizarteko zati handi batean eragin zuen pozarekin pareka genezake kasik Euskaldunak Gipuzkoan eskuratu zuen garaipenak andoaindarren artean sortu zuen sentimenduak.

Nolanahi ere, ibilbide laburrekoa izan zen alaitasun kolektibo hura, Errepublikaren haize askatzaileak gogoko ez zituzten faxistek moztu baitzuten guzti hura, uztaillaren 18an martxan jarri zuten kolpe militar odoltsuaren eskutik.

Kolpe militarrek eta ondorengo gatazkak gizarte osoa minez eta odolez jantzi bazuen ere, bereziki txikitu zuen herriko kultur, gizarte eta kirol dinamiketan buru belarri inplikatu zebilen belaunaldi gaztea. Euskaldunak jokalariek osatutako taldeak ezin egokiago irudikatzen du belaunaldi hura. Errotik moztua izan ez balitz, Andoaingo historiaren norabidea markatuko zuen etorkizunean belaunaldi horrek, diktadura frankistak errealtatean eraman zuen bide ilunetatik urrun.

1936ko argazkian ageri diren jokalaria gehienek bat egin zuten Errepublikaren zilegatasun demokratikoarekin, eta aurreneko egunetan hartu zituzten armak eskuetan, Nafarroatik zetozen tropa faxistei aurre egiteko, Belabietako zelaietan lehenbizi, Buruntza edo Belkoaingo ton-torretan ondoren, eta Bizkaiaiko eta Kantabriako frontean, azkenik. Horien aldean, beste bakar batzuk, borondatez nahiz kintek behartuta, bat egin zuten kolpearekin.

Errepublikaren alde borrokatuz hildako jokalariai

- **Nikolas Agirre Garmendia, Kaxtro** (Andoain, 1915). Herriko kultur eta kirol eragilea. Batzokiko bazkidea. Ezpata-dantzaria, ezkongabea. Ahots indartsua zenez, Batzokiko abesbatzako

bakarlarria izaten zen maiz, euskal kutsuko emanaldietan, Aberri Eguna, Santa Ageda, Gabon eskea... Andoain hildako lehen herritarra izan zen, abuztuaren 11n hain zuten. Horretarako, aurrez, egun behar da kontu Andoain eratu ziren lehen defentsa partidak Leizaran eta Belabietako parajeetara abiatuak zirela, Nafarroatik zetozten tropa faxistari aurre egiteko asmoz, Casiano Izquierdo Andoaingo karabineroaren agintepean. Armamentuz eskas baina borondatez gainezka. Errepublikaren sistema demokratikoa defendatzea zuten helburu. Esan bezala, abuztuaren 11n, borrokaldi latza gertatu zen Belabietako goi zelaietan, eta bertan akabatu zuten Agirre gaztea maindire zuri batez estalita, kotxe baten gainean jaitsi zuten herrira. Andoaindar gehienek ikusi zuten Kaxtro-ren gorpua, eta izua hezurretaraino sartu zitzaizen kolpe zaleekin bat egiten ez zuten makina bat andoaindarrei. Ihesaldi masiboa gertatu zen abuztuaren 11az geroztik hurrengo egunetan; ia 4.000 biztanleko herria hustu samar geratu zen; kasik erdiek, Bizkaiko bidea hartu zuten. Batzuk ez ziren gehiago itzuliko.

- **Jose Arratibel Fernandez** (Andoain, 1917). Etxeberrietan bizi zen familiarekin, ezkongabea. Atezaina zen Euskaldunan. Futbolzale porrokatua izaki, Subijanako lantegian goizeko erreleboko lanari ekin aurretik, 05:00etan, Inazio anaia esnatu eta arrastaka Etxeberrietara eramaten zuten, haren jaurtiketekin entrenatu nahi izaten baitzuten. Bizkaian frontean, intendentziako batailoi abertzale batean ari zela galdu zuen bizia, 1937ko apirilean.
- **Juan Inazio Peruarena Rekalde** (Andoain, 1918). Kale Berrian bizi zen familiarekin, eta Subijanako langilea zen. UGTko militantea zen eta Rusia batailoiaren jardun zuen Bizkaiko frontean. Asturiasen desagertu zen 1937ko urrian, eta, ba-

liteke, bertan, tropa frankistek atxilotu eta haiek erail eta desagerrarazi izana.

- **Joxe Mari Arrieta Gorosarri** (Andoain, 1910). Kale Nagusian bizi zen familiarekin. Herrian hainbat ekimen publikotan mugitu zen gaztea: San Martin abesbatzako kantaria, Udal Musika Bandako klarinete jolea, Andoaingo ELA sindikatuko Kooperatibako Batzordekidea... Bizkaiaiko frontean, EAJren Amayur batailoiaren borrokatu zuten, eta 1927ko apirileko ofentsiba frankistan erail zuten.

Bestalde, ezin aipa gabe utzi Euskal Ejerzitoarekin gudariak edo milizianoak izan eta gero, kartzelaldia nahiz langile batailoiaren esklabutza pairatu zituzten Euskaldunako jokalariai: Teodoro Txopeitia, Alfredo Alvarez, Lorentxo Galartza, Bautista Zabala, Ramon Salazar, Luis Zabala, Ramon Zelarain, Teofilo Usandizaga, Mariano Fernandez eta Inazio Arratibel.

Kolpe militarrekin borrokatuz hildako jokalariai

- **Alberto Urrutia Genua** (Andoain, 1916). Etxeberrietan bizi zen, familiarekin. Subijanako langilea. Ideologiaz karlista izaki, bolondres gisa joan zen erreketeeekin, eta Zumalakarregi eta San Ignacio Tertzioetan egin zuen borroka. Teruelgo frontean 1938ko urtarrilean hil zuten.
- **Patxi Arratibel Beldarrain** (Andoain, 1919). Kale Nagusian bizi zen, familiarekin. Lanbidez okina zen, familiaren okindegian. 1936-1937 epean, Pelayoekin (karlismoaren gaztetxo sekzio paramilitarra) erakusle lanetan jardun osten, erreketee bolondres gisa aritu zen Ebroko gerra-frontean. 1938ko abuztuaren hil zuten.
- **Jose Toribio Erauskin Soroa** (Andoain, 1917). Etxeberrietan bizi zen, familiarekin. Subijanako langilea zen. 83. Dibisioko Argel Batailoiara destinatua zuten, eta Castelloko frontean hil zuten, 1938ko maiatzean.

GIPUZKOAKO HIRUGARREN MAILAKO LIGA TXAPELKETA IRABAZI ZUEN EUSKALDUNAK

1936KO ARGAZKIKO JOKALARI GEHIENEK ERREPUBLIKAREN ZILEGITASUNAREKIN BAT EGIN ZUTEN



LEIZARAN

Leizaran taldekoak, Agredan

ESKUBALOIA 15 klubuen artean 42 talde elkartu zituzten. Antolatzaileen arabera, 1500 lagun elkartu ohi dira Sorian. Partaideen artean ziren BM Agreda, BM Tarazona, Almassora, Rubi, Uhartea, Udaibai eta Leizaran eskubaloi taldeak. Ohi bezala esperientzia polita izan zen andoaindarrentzat.



LEIZARAN



LEIZARAN



LEIZARAN



Ezkerretik hasita, laugarrena da Iker Carracedo urnietarra. Bimtrazer Fly taldekoek larunbatean Le Mans-eko Munduko Txapelketan parte hartuko dute. CARRACEDO

Andoni Urbistondo URNIETA

Motorrek lotu egiten dute. Zaletasun ikaragarria pizten dute jendearengan. Autoek, futbolak edo beste kirol diziplina batzuk bezala. Iker Carracedo urnietarrak hiru hamarkada daramatza motor gainean hara eta hona. Ibilgailu oro maite du: scooter bat, motokrosekoa, zirkuituetako motor potenteak... Lehiaketetan ibili zalea da, eta erresistentziako Munduko Txapelketetan murgildu da azken urtetan Patxi Larrea manager hernaniarra lagun. Bimtrazer Fly taldea osatu dute, eta larunbatean Le Mans-eko Munduko Txapelketan parte hartuko dute: 24 ordu etenik gabe, hiru gidarirekin. 8 ordu motor gainean ia-ia atsedetik hartu gabe. Euskaldun bakarra da Iker, noski, eta proba hasteko irrikan dago.

Iker Carracedo: "Tentsio handiko 24 ordu dira, eta nekea handia izaten da, baina gustuko tokian aldaparik ez. Niretzat aukera bikaina da, bakarra. Le Mans, gidari bikainak alboan, abiadura, gauez...". Serio hartu behar izan du erronka, Bymtrazer babesleari esker lehiatu ahal izango dutelako. 25 laguneko taldea mugiaraziko dute, "eta neurria eman behar duen lehen motorraren gainean doana

Abiaduraren gozoa

MOTORRA Iker Carracedo urnietarrak Le Mans-ko 24 orduetan parte hartuko du, Erresistentziako Munduko Txapelketan; 8 ordu 200 zaldiko motor gainean, 280 kilometro orduko abiaduran

da". Erorikoen arriskua benetakoa dela dio, "eta orduan eta sasoi puntu hobea izan, beranduago nekatzen zara, erorketa arriskua murriztuz". DAZN eta Eurosport telebista kateetan ikusi ahal izango da proba, larunbatez, eta arratseko 15:00tan hasita.

Patxi Larrea da taldeko Team Manager-a, "taldeko koordinazioaren arduraduna. Gauza pilo

DAZN-EN ETA EUROSPORT-EN IKUSI AHAL IZANGO DA PROBA, LARUNBATEZ, 15:00TAN HASITA

bat lotu behar dira, eta ni arduratzen naiz". Larrea box-ean geratuko da, proba jokatzeko den bitartean, baina motor zale pe-toa da: "Noski. Yamaha Kopa korritu genuen aurrena, eta ondoren proba hobeak korritzeko grina pizten zaizu. Iaz sortu zen taldea, Montmeloko 24 orduko probara joan ginenean (Bartzelona, Katalunia). 4. geratu ginen sailkapen nagusian, eta lehenak gure kategorian". Le Mans egiteko aukera aipatu omen zuen norbaitek. "Munduko Kopako lehiaketa da, erronka handia. Yamaha, Honda, Ducati, Suzuki eta beste marka ofizial guztiek parte hartzen dute, 30 bat talde, oso indartsuak,

eta amateur-ak, edota talde pribatuak garenontzat irits ezinak".

55 talde lehiatzen dira denera. Le Mans-en hiru gidarik osatzen dituzte 24 orduak, eta Montmelon lauk. "Alegia, Le Mans-en ahalegin fisikoa askoz handiagoa da, erresistentziak garrantzia handiagoa du", esan du Larreak. Oscar San Emeterio, Iker Carracedo eta Joan Zamorano izango dira gidariak, eta Ricar-

IKER CARRACEDO, OSCAR SAN EMETERIO ETA JOAN ZAMORANO IZANGO DIRA GIDARIAK

do Saseta gidaria egongo da box-ean gidariaren jarraipen zehatza egiten. Zein ote, bada, erronka? "Kale ez egitea. Ez pista barruan, ezta kanpoan ere. Kanpoan diodanean piezak aldatzeko orduan eta beste diot, Montmelon balazta pintzak aldatzerakoan-eta arazoak izan genituelako. Akats horren erruz laugarren bukatu genuen, eta akats hori gabe hirugarren izan-go ginen".

Munduko Kopan parte hartzea ez da erraza, baldintza asko bete behar dira: depositua betetzeko sistema berria, izen-emateak, akreditazioak... "Sei ordu pasa egon nintzen kide guztion izen-ematea egiten egun gutxi atzera", dio Larreak. "Lagundu egiten dut, kanpotik, baina taldeko kide guztiak bezala. Talde bat gara, 25 lagun denera: gidariari arbela erakusten dioten lagunak, pneumatikoekin bi lagun, mekanikariak beste bost, erregai depositua betetzeko beste hiru lagun, catering-az arduratzen direnak...". Txantxetan dio Larreak alor horretan beti podiuma egiten dutela, "onenetakoak gara. Gure menuan ziurak dira txuleta eta ganba handiak. Talde askotako jendea hurbiltzen da guregana janaria dastatzera, proba amaitzen dugunean". Babesle bat dute, Bimtrazer Fly, baina gero kide gehienek diru puska bat jarri behar izaten dute halako ekimenetan parte hartzeko.

Gidariak lau hilabete luze daramatzate prestatzen, elikadura zaintzen, fisikoki indartsu egotea funtsezkoa delako. Eta gidariak bezala, taldeko kide guztien lana, bere alorrean, funtsezkoa omen. Larrea: "Pieza batek kale egiten badu talde osoari eragiten dio". Astelehenean iritsi ziren Le Mans-era, eta asteartean eta gaur itzuliak eman eta eman aritu dira. Atzokoan ikuskaritzak egin zizkieten. Datu deigarri bat, probaren neurriaz jabetzeko: atzeko 40 gupil erabiltzen dituzte, eta aurrekoak 25, denera.

Eta zer behar da Le Mans-en korritzeko, ze baldintza bete? Carracedo: "FIM Nazioarteko Motor Federazioako nazioarteko lizentzia behar duzu, hasteko". Larrea: "Taldearen garaipen zerrenda funtsezkoa da parte hartzeko aukerak izateko. Montmelon sailkapen nagusian lortu genuen laugarren postua, eta

Open Super Bikes kategoriako txapeldunak izateak atek ireki zizkigun. Le Mans antolatzen dutenek badakite, emaitza horien baitan, amateur-ak izanda ere gai garela proba txukun osatzeko". Carracedo: "Denbora muga bat daukazu. Le Mans-eko itzuli onena 1.36an egiten bada, 96 segundo, guk gehienez onenak baino %10 gehiago egin dezakegu. Alegia, 9.6 segundo edo. 1.46tik jaitsi behar dugu itzuli guztietan. Aise gaintzen dugu langa hori, onenak baino 4-5 segundo okerrago ibiltzen gara".

Diferentzia gidaritzan dago, "munduko onenen artean ibilitakoen aurka aritzen baikara: Randy de Puniet, David Checa eta Xavi Fores Super Bike kategoriako gidariak, Isaac Viñales, Niccolò Canepa, Karel Hanika, Mike Di Meglio... Horiakin korritzea, noski, sentsazio berezia da: "Kabituz ezinik zaude. Gidari ikusgarriak dira, asko goren mailan ibili izan direnak, eta zu haiekin batera korritzen ari zara. eta motorretan ere. Talde ofizialak dira, material onena dute: bihurtu azkarrago sartzen dira, azkarrago irten, abiadura punta ere handiago dute". Larreak egin du konparazio egokia: Futboleko Kopako partida bat konparatzea bezala litzateke. Talde ofizialak Lehen Mailan daude, gu 2. mailan, edo 2. B mailan".

Motor ikusgarria

Daramaten motorrak 1000 c.c du, 200 zaldiko indarra, eta 280 kilometro orduko abiadura harrapatzen du helmugako zuzengunean. 55-56 minutuko txandak egiten dituzte gidariek, depositu bat erregai jaten duten tartea. Gero bigarren gidariak hartzen du motorra, eta ondoren hirugarrenak. "Bi ordu eskaseko atsedean horretan tentsioa hartzen dizute, dutxa bat hartu, zerbait jan, fisioarekin egon eta gero atsedena hartu", azaltzen du Carracedok. "Zure txanda hasi baino 20 minutu lehenago prest egon behar duzu, zernahi gerta. Txanda eta txanda arteko denbora hori azkar joaten da. Montmelon txandak hiru orduko ziren, badaukazu denbora atsedena hartzeko, Le Mans-en ez".

Topera joaten omen dira beti, ordubetz, eta zortzi txandatan. Nekea areagotuz joaten da, "eta fisikoki oso indartsu egon behar



Bimtrazer Fly taldearen aurkezpen fitxa, Le Mans-eko lasterketan. LEMANS



Probaz gozatzeraz doaz eta horretarako ezinbestekoa izango da arazo mekanikoak saihestea. CARRACEDO

zara. Erresistentzia landu dut, batez ere, prestakuntzan, azken urte erdian". Nola ote da gauez

"ARAZO MEKANIKOAK OSO OHIKOAK IZATEN DIRA, MOTORRA MUTURRERA ERAMATEN DELAKO"

280 kilometro orduko abiaduran joatearen sentsazioa? Carracedo, natural: "Niri ikaragarri gustatzen zait gauez gidatzea. Gurpilek grip gehiago dute, itsaste handiagoa zorian, eta motorrak gehiago korritzen du. Gozamen hutsa da. Argiztatuta dago zirkuitua, inor ez inguruan, sentsazio ederra da benetan. Profesionalen pare etzaten gara

ia-ia, abiadura txikixeagoan". Irteera izaten da une berezieneak: "Tentsioa latza izaten da

"TENTSIOA LATZA IZATEN DA IRTEERAN, NAHIZ ETA JAKIN ONDOREN 24 ORDU DITUZULA AURRETIK"

irteeran, nahiz eta jakin ondoren ia 24 ordu dituzula gozatzeko. 700 itzuli pasa egin genituen Montmelon, Le Mans-en 1.40 itzuli bakoitza, egin kontu zenbat itzuli emango ditugun denera".

Beldurrik izaten al du Ikerrek, abiadura ikaragarri horretan? "Ez, ez duzu pentsatzen, eta ez zara jabetzen. Sekulako abiaduran zoaz, baina motor gainean ez zara konturatzen". Larrea: "Zirkuituak egun oso ondo prestatu eta babestuak daude, istripuak gertatzen direnerako. Kaskoa ere onena da, segurtasun handikoa. Montmelon orduko 290 harrapatzen da, Le Mans-en 280, baina abiadura punta hori baino ikusgarriagoa da belauzarekin zoru ukitzen joatea 180 edo 200 kilometro orduko abiaduran. Hori krixtona da". Ikerrek, euren jarduna azaltzeko saiakeran, azalpena eman du: "Batzuk 8.000 metroko mendietara joaten dira, edo parapentea egin, gu motorrean ibiltzen gara. Motorzale petoak gara, eta motor diziplina askotan ibiltzen gara. Motorrak kenduko balizkigute, gure bizitza ez litzateke hain polita izango. Gure egunerokoaren ezinbesteko osagaia dira".

Hogetailau orduz, adi

Box-ean ere 24 ordu eman behar dira adi. Larrea: "Geuk ere apenas hartzen dugu atsedeenik. Halako koltxoneta batzuk ditugu, atsedena hartzeko, baina tentsioak ez dizu uzten lasaitzen. Alkoholik gabeko festa polita da. Minutu guztietan gertatzen dena bizitzen duzu". Giroa ona izaten omen da talde indartsu netako gidari eta lan taldearekin. "Errespetatzen ditugu, eta errespetatzen gaituzte".

Kirol erronkarik ba ote dute, larunbaterako? "Ni neu bukatzearekin konforme nintzateke", dio Larreak. "Arazo mekanikoak oso ohikoak izaten dira, motorra muturrera eramaten delako. eta Top 30aren barruan sartzen bagara, bikain. Guk dena ondo joatea nahi dugu, arazorik ez egotea eta proba osatzea". Eta bukaera. Bukaera ezagutzeko grina sumatzen zaio Carracedori: "Ederra izaten omen da, emozioz beteriko unea. Frantziako ereserkia jotzen dute nean... GP-ko gidari baten pare sentitzen zara. Amets bat da guretzat". Bete dadila!



Unai Perez eta Alberto Garcia, Kia Kaharen instalakuntzetan. AIURRI

“Bakoitzaren aukerei eta gaitasunei erreparatzen diegu saioak prestatzeko”

UNAI PEREZ ITURRIOZ ETA ALBERTO GARCIA LETE CROSSFIT ENTRENATZAILEAK

Azken boladan, arrakasta nabarmena izan du crossfit-ak Euskal Herrian. Inertzia horri ertsu dio Kia Kahak Urnietan

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Orain gutxi ireki zituen atea Kia Kaha crossfit guneak Urnietan. Hilabete batzuk igarota, martxa ederra hartu du zentroak, eta makina bat herritar gerturatu da, nazioartean, baita Euskal Herrian ere, zitzu bizian nagusitu den entrenamendua

egitera. Bertako entrenatzaile dira Alberto Garcia Lete urnietarra eta Unai Perez Iturrioz ordiziarra. Maorien hizkuntzatik dator Kia Kaha, "senti ezazu indarra".

Joan den neguan ireki zituen atea Kia Kahak Urnietan. Jada, erritmoa hartuta?

Alberto Garcia Lete: Oso pozik gauden. Box-aren barruan, talde polita osatzen ari gara, finean, hori ere badelako crossfit-a: ez da, soilik, entrenatzera etortzea, mugimenduak ezagutzea zein prestakuntza fisikoa egitea, izan ere, nork bere erronkei aurre egitea ere badu helburu entre-

namenduak. Bada, horretan, pozgarria da jendeak aurrerapausoak ematen dituela ikustea.

Unai Perez Iturrioz: Gaur egun, gutxi gorabehera, 87 kide ditugu gurean. Entrenatzean, jendearekin ere egoten zara, taldean egiten delako kirola, alegia, asko laguntzen dizu zure desafioak gauzatzen, entrenamenduak iraun bitartean, gelakideekin daukazu harremanak. Azken hori ez duzu topatzen, normalean, gimnasio konbentzional batean. Gurean, familia bat osatu dugu, hasieran, elkarren berririk ia ez zuen jendearen artean. Banaka edo binaka etortzen ziren, eta, orain, pixkanaka, crossfit-eko gimnasioetan topa dezakezun komunitatea osatzen ari gara.

A.G.L.: Urnietako proiektua Kia Kaha Uribe kostaren jarraipena da, lehen Kia Kaha gunea Berangon ireki baitzen. Horrela, gertutik ezagutzen dugu egitasmoaren testuingurua, hainbatetan izan baikara bertan entrenatzen.

Zuek ere orain ondo aipatu bezala, komunitateaz hitz egiten da crossfitean.

U.P.I.: Jende askoren sozializatzeko aitzakia da kirola egitea. Hori horrela, nire ustez, sasoiaren egoteko nahiz jendea ezagutzeko aukera ona da crossfita.

A.G.L.: Gimnasio konbentzional batean, diziplinatik eta konpromisotik asko behar da, konstantzia lortu ahal izateko, finean, borondate handiagoa behar delako. Batzuetan, daukagun bizi-ereduarekin, zaila izaten da tartea hartzea, nahiz eta, azken boladan, hobera egin duen inertzia. Aldiz, hemen, ordaintzen duzunaren arabera klase-kopurua daukazu hilabetean, eta, nahieran antolatzeak aukera daukazu. Asteroko iraunkortasunari garrantzia ematen dioguk, bakoitzak ahal duen neurrian. Ikasteko gogoia dauka jendeak eta gero eta gehiago jartzen da balioan entrenatzaileen irudia.

Zein motatako jendea datorkizue? Hasiberria ala, jada, ibilbidea osatua duena?

A.G.L.: Denetik dago, baina ehuneko handienak ez du sekula lehenago crossfit-a probatu.

U.P.I.: Kirolean murgiltzeko aukera ezinhobea da. Aspaldian, kirol askorik egin ez duen jendea etorri zaigu, gehienbat. Lehenik, garrantzitsua da crossfit-eko mugimenduak ezagutzea, beha-

rezkoa delako alderdi teknikoa menperatzea.

A.G.L.: Piramidearen irudia erabili ohi dut nik entrenamenduak azaltzeko. Beheko mailan, oinarria egongo litzateke. Erdian, alderdi fisikoari, indarrari, kalitateari erreparatzen zaio eta, azkenik, abilezia kokatzen da gailurrean: crossfiteko mugimendu espezifikoa, teknika lan handia... Gurean, maila guztiak lantzen ditugu.

U.P.I.: Halterofilia (indarra, bere horretan), ariketa kardiobaskularrak eta gimnastikoak. Hiru oinarri horien barruan, sar genezake klaseetan egiten dugun guztia. Ziurrenik, ez duzu sekula entrenamendu bat bera ere errepikatuko, hiru alderdi horiek lantzeko ariketak uztartzen eta aldatzen joaten baikara, astero-astero.

Hori guztia gauzatzeko espazio ederra daukazu Erratzu industriagunean. Zein azpiegitura dituzue?

A.G.L.: Alde batean, klaseak egiteko gunea daukagu, eta, beste aldean, ostera, "open box" zerbitzua. Zertarako darabil jendeak azken hori? Ordu-tarte bat erreserbatu eta nahieran entrenatzeko.

U.P.I.: Jende gehiago batu ahala, azpiegitura osatzen joango gara. Horrela, bi klase aldi berean emateko aukera izango dugu. Lehena klase normala izango da, eta bigarrena zehaztasun handiagokoa.

Ildo beretik, ordutegi zabala daukazu guztien beharrak ahalik eta ondoen asetzeko.

A.G.L.: Gaur gaurkoz, goizez, bizpahiru klase izan ohi ditugu, eskariaren arabera. Arratsaldeei erreparatuz gero, hiru klase, 17:30-20:30 bitartean. Astearte eta ostegunetan oso goiz hasten gara, jendearen mesederako.

Taldean egiten dituzue entrenamenduak, baina bakoitzak dituen gaitasunei garrantzia emanda.

A.G.L.: Hori da, bakoitzaren aukerei eta gaitasunei erreparatzen diegu, eta horien arabera ariketak proposatzen dizkiegu. Etengabean, entrenamenduek aurrera egin ahala, jendeak nola egiten duen lan ikusten dugu, neurria, aurrera eta atzerako inertzian.

U.P.I.: Pertsona bakoitzari egokitutako hamaika aukera dago gorputza lantzeko. Finean, estimulua bilatzea da xedea, mugimendu baten edo beste baten bitartez.



Urnietako Erratzu industrigunean dituzte instalakuntzak. AIURRI



Instagram eta webgunearen bidez harremanetan jartzeko aukera dago. AIURRI

**Zer sentitzen duzue jendeak aurre-
rapausoak ematen dituela ikustean?**
U.P.I.: Poza ematen dit jendearen
motibazioak gorantz egin duela
ikustean. Orain hamar minutu

lehenago etortzen da jendea,
aurreko orduan entrenatzen ari
direnei animatzera. Disfrutatu
egiten dut, ez baitut sekula lehe-
nago ikusi horrelakorik.

**"HURBILDU ZAIGUN
GEHIENGOAK EZ DU
LEHENAGO CROSSFITA
PROBATU"**

ALBERTO GARCIA LETE

**"POZA EMATEN DIT
MOTIBAZIOAK
GORANTZ EGIN DUELA
IKUSTEAN"**

UNAI PEREZ ITURRIOZ

A.G.L.: Era berean, jendeak asko
ikasi du entrenamenduen bidez,
batez ere, konstantziaz bertara-
tu diren horien kasuan.

U.P.I.: Ez da, soilik, zure gorputza
ezagutzea, zure gorputza mugimenduan
ezagutzea baizik. "Ezin dut" dio jendeak,
baino gero lortu egiten dute. Hortaz, pix-
kanaka, ikasi egiten da zer eta
nola egin helburua lortzeko.

A.G.L.: Hasiera-hasieran, pertso-
na bat, gorputzeko mugimenduei
dagokionez, ezjakina eta ezgaia
da. Bada, entrenamenduaren
bidez, aldatu egiten da hori.

**Horrenbestez, zer eta nola egin
behar du Kia Kahan hasi nahi duen
batek?**

U.P.I.: Instagramak pisu handia
dauka, eta bide ona da gurekin
harremanetan jartzeko. Bestela,
gure box-era gerturatzea da
aproposena, zer egiten dugun
ikusteko, baita probatzeko ere,
lehen klasea dohainik baita. Web
orrialdea ere badaukagu
eta bertan dago informazio guz-
tia, baita 943 088 071 edo 747 417
133 telefono-zenbakietara hots
eginez gero ere.

**"BAKOITZARI
EGOKITUTAKO
HAMAIIKA AUKERA
DAGO"**

UNAI PEREZ ITURRIOZ



Parada lehendakariak oroigarria eskaini zion Realari, Eizagirreraren bidez. EUSKALDUNA

Realaren lan saioa Ubitarten

FUTBOLA Ez ohiko ibistaldia izan zuten Ubitarten, Pazko Astean. Realak Euskaldunaren zelaian egin zuen lan saioa, herriko haurren begiradapean. Erkizia prestatzaile fisikoa herrikideen aurrean lanean aritu zen, Arroyo entrenatzailearen begiradapean. Euskaldunak harrera beroa egin zion Realari.



Erkizia aginduak ematen, Arroyo entrenatzailearen begiradapean. EUSKALDUNA



Euskaldunako jokalarri gazteak pozarren hurbildu ziren jokalarriengana. EUSKALDUNA



EUSKADIKO FEDERAZIOA

Etxarri eta Aranguren, lehia betean izan dira oporraldian

TXIRRINDULARITZA Pistan aritu da Etxarri, eta errepidean, berriz, Aranguren

Erredakzioa ANDOAIN

Andoaingo Txirrindulari Eskolako kadete mailako neskak kirolari petoak dira, eta atse-denaldirako tarte txikia hartu dute. Aste Santuan lehian aritu baitira biak. Etxarri Espainiako Pista txapelketan aritu da, Euskal selekzioarekin. Txirrindularitzaren aldaera ezberdine-

tan maila ona erakutsi du, beste behin ere. Dominak eta guzti lortuta itzuli da. Aranguren, aldiz, asteburuan egin ziren kadete mailako bi lasterketetan parte hartu zuen taldekide bakarra da. Altsasun eta Agurainen aritu zen, eta bi lasterketetan mutilekin batera aritu zen lehian.



ANDOAINGO



Leizaran taldeko kideak, artxiboko irudian. LEIZARAN

Leizaran Ernio Inmobiliaria igoera lehiatzeko sailkatu da

ESKUBALOA Ligaskan hirugarren postua lortu du, Urola taldearekin berdinduta

Erredakzioa ANDOAIN

Udaberrian tokian tokiko kirol taldeek herria pozten duten albisteak eskaintzen dituzte. Horietako bat Leizaran Ernio inmobiliaria taldea da, igoerako ligaxka jokatzeko sailkatu baita.

Ligaxkako txartela eskaintzen duen hirugarren postua lortu du. Laugarren taldearekin berdinduta amaitu dute liga. Dena esatera, Urola eta Leizaran taldeak oso parekatuta ibili dira. Leizaran taldeak 6. jardunaldian Urola garaitu zuen haien kantuan (22-23). Eta 17. jardunaldian, Andoainen, gol bakarreko al-

dearekin irabazi zuen (29-28). Bien arteko average-a, andoaindarren aldekoa izan da. Aste Santuak eta gero, lehiaketa berria hasiko da. Igoerako partidak prestatu eta jokatzeari, horixe da Andoaindarren helburu berria.

ESKUBALOA

1. lurraldeko senior maila, gizonezkoak

SAILKAPENA

1	ORDIZIA	33 puntu
2	SAIEKO	31 puntu
3	LEIZARAN	30 puntu
4	UROLA	30 puntu
5	HONDARRIBIA BIDASOA	25 puntu
6	SORALUZE	25 puntu

Merezimendu osoz, urdinak nagusi

ERREMONTEA Berria

txapelketaren finala aurreko larunbatean jokatu zen, eta Goikoetxea urnietarrak ezin izan zuen txapela jantzi. Bizi izandako esperientzia, ordea, oso baliagarria izango zaio etorkizunean. Gurrutxaga eta Zaldua nagusitu ziren, Goikoetxea eta Aiestaran mendean hartuta (30-35). Merezimendu osoz nagusitu ziren urdinak, eta nahiz eta 27 puntura berdinketa lortu, azken txanpan ere Gurrutxaga eta Zaldua hobeak izan ziren. Tanto gehiago egin zituzten, akats gutxiago egin zituztelako.



ORIAMENDI

Bigarren postuan sailkatuta, liderraren zain

FUTBOLA Deusto garaitu zuen aurreko jardunaldian, Ubitarte zelaietan (2-1). Real Union zain dute

Erredakzioa ANDOAIN

Gizonezkoen Gorengo mailan Sanpedrotarra, Orioko eta bigarren sailkatuta doan Deustu garaitu ditu Euskalduna taldeak. Bolada bikaina, beraz, urdinena. Aste Santuaren bueltan, azken txanpari helduko diote Real Union liderraren aurka jokatzeari. Koska bat gorago dagoela erakutsi dute. Apirilaren 22ko asteburuan abiatuko da 26. jardunaldia. Liga amaitzeko, beraz, lau partida baino ez dira geratzen.

FUTBOLA

Gizonezkoak, Gorengo maila

AURREKO JARDUNALDIA

Euskalduna 2-1 Deusto

SAILKAPENA

1	REAL UNION	61 puntu
2	DEUSTO	51 puntu
3	EUSKALDUNA	47 puntu
4	TOURING	43 puntu

26. JARDUNALDIA

Real Union-Euskalduna / Apirilak 22-23



Apirilaren 1ean egin zuten erakustaldia, Allurralden. AIURRI

Erakustaldia Allurralden

GIMNASIA ERRITMIKOA Andoaingo taldeen erakustaldia izan zen, eta hitzordura gonbidatu zituzten urnietarrak. Harmailak ikuslez beterik zeudela, adin ezberdinetako dozenaka gimnastek erakustaldi aparta eskaini zuten. Musika garaikidea inspirazio-iturri hartuta, askotariko ariketak eskaini zituzten. Bereziki aipatzekoa da helduenek egin zuten ariketa kopuru handia.



UKE

Atsedendia, igoera faseko azken txanpari hobeto eusteko

FUTBOLA Pablo de Torresen mutilek berdinketa lortu zuten aurreko jardunaldian

Erredakzioa URNIETA Sanpedrotarra B taldearen zelaian berdinketa lortu zuten De Torresen mutilek, apirilari hasiera ematen zion asteburuan (1-1). Okertuz joan zen bolada txarra zuzentzen hasi da, azken hiru jardunaldietan bi porrot eta berdinketa lortu dituztelako. Aste Santuaren ostean, apirilaren 22ko asteburuan, aro erabakigarrian sartuko baitira. Ligako azken bost jardunaldiak jokatuko baitira.

FUTBOLA Erregional maila, igoera fasea

AURREKO JARDUNALDIA

Sanpedrotarra B 1-1 Urnieta

SAILKAPENA

1	LANDETXA	17 puntu
2	URNIETA	16 puntu
3	MARIÑO	14 puntu
4	LENGOKOAK	12 puntu

HURRENGO JARDUNALDIA

Mariño-Urnieta / Apirilak 22-23



UKE

Quel abogadosen garaipena

ESKUBALOIA Urnieta Quel Abogados taldeak Muntarpe garaitu zuen etxean (20-17), Gipuzkoako emakumezkoen 1. lurrealde txapelketako 22. jardunaldian. Lau partida besterik ez dira falta, ligari amaiera emateko. Urnietarrak 5. postuan sailkatuta daude. Urnieta eta Ereintza, bosgarren eta seigarren sailkatuak, elkarren aurka ariko dira, Aste Santuaren osteko jardunaldian.



UKE

Beste bat arte, Euskal Ligari

ESKUBALOIA Gizonezkoen senior mailako Urnieta Artola Harategia taldeak ahalegin handiak egin ditu Euskal Ligako mailari eusteko, baina Deusto-Loiola taldearen aurka galduta (24-30), agur esan diote ilusioari. Partida osoan donostiarrak aurretik joan ziren.

Zuiako duatloian

DUATLOIA Aitor Murua eta Axier Etxezarreta Zuiako duatloian aritu ziren, hilaren hasieran. Lehen sektorean eguraldia egonkor zegoen, eta bat-batean tenperatura jaitsiera garrantzitsua eman zen. Kazkabarra eta haizetea nagusitu ziren. Bigarren eta hirugarren sektoreak zaildu egin ziren arren, Zumeatarrako bi ordezkariak osorik amaitu zuten proba.



ZUMEATARRA



AIURRI

Garaipena lortuta helduko diote azken txanpari

SASKIBALOIA Infantil mailako partaidetza ligako A-3 taldean maila oso txukuna eskaintzen ari da Plastigaur Ganbara taldea. Urtarrilean hasitako lehiaketa amaitzeko hiru jardunaldi falta direnean, bost garaipen eta bi porrot izan dituzte.

Apirilaren 1ean, Allurralde kiroldegian, garaipen argia lortu zuten Antigua 10 taldearen aurka (43-17). Aste Santuak eta gero, ligako azken hiru jardunaldiei ekingo diete. Horietatik partida bakarra jokatu dute Allurralden, datorren maiatzaren 6an hain zuzen.

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

LARUNBATA 15

ANDOAIN Ekitaldia

Txalapartariak, bertsolariak, dantzariak eta Banda Errepublikanoa Oroituz elkarteak antolatutako ekitaldian. 1936an fusilatutakoak gogoan hartuko dituzte.

12:00, Alfaro parkea. Etxeberrieta.

ASTEAZKENA 19

URNIETA Hitzaldia

"Bullying egoerak minimizatzeko ingurune segurua nola sortu", Izaskun Lopez adituaren eskutik. 18:00, Kiroldegiko aretoa.

URNIETA Zineforum feminista

"Paris a toda costa", filma. Jabekuntza Eskolaren baitan. 18:00, Lekaio.

URNIETA Hitzaldia

"Etxearen ordainketarako gakoak" hitzaldia eskainiko du Sarah Alfonsok. Hipotekarekiko zalantzak argitzen saiatuko da, eta etxeko ekonomia egoki kudeatzeko aholkuak eskainiko ditu. Zilegi Eskolak antolatuta. 18:30, Sarobe.

OSTEGUNA 20

URNIETA Hitzaldia

"Adimen emozionala, zer da sentitzen dudana?" izenburupean, Jone Zalduegiren eskutik. 18:00, Kiroldegiko aretoa.



Robyn Hitchcock. BASTERO

ANDOAIN Rock musika

Robyn Hitchcock & Los del huevos Band eta Juarez taldeak, zuzenean. Apirilak 14, ostirala. 20:00, Bastero Kulturunea. 12 euro.

ANDOAIN Erakusketa

Euskalduna taldearen mendeurrenako erakusketaren irekiera ekitaldia. Maiatzaren 20ra arte zabalik izango da. Bastero, erakusketa aretoa.

ANDOAIN Ikuskizuna

"Erik eta Win" bertso, antzerki, poesia eta musika ikuskizuna. 20:00, Bastero.

OSTIRALA 21

ANDOAIN Musika

Macaco taldeak ibilbide oparoa osatu du, eta "Vielame el corazon" disko berriena aurkeztera dator. 20:00, Bastero. 12 euro.

LARUNBATA 22

ANDOAIN Haur ikuskizuna

"Itsasminez" haur antzerkia. Argik ez du bere etxetik itsasoa ikusten, baina ezagutu eta maite egiten du. 17:00, Bastero. 4 euro.

OSTIRALA 28

ANDOAIN Santakruzak

Haur pegoia, Zumeatarra elkartearen danborrada, helduen pegoia... Santakruzak bertan dira! Apirilaren 28an hasi eta maiatzaren 3ra bitarte Kale Nagusia eta inguruak jaiari murgilduko dira. 16:00tan hasita.

ZINEMA



ANDOAIN

BASTERO

Loli tormenta


Lar., 15. 19:30, 22:00.
Ig., 16. 19:30.
Asti., 17. 19:30, 22:00.

Oink oink

Lar., 15. 17:00.
Ig., 16. 17:00.

20.000 especies de abejas

Lar., 22. 19:30, 22:00.
Ig., 23. 19:30.
Asti., 24. 19:30, 22:00.



SINOPSIS



Loli tormenta

Zuzendaria: Agustí Villaronga. Aktoreak: Susi Sanchez, Joel Galvez, Celso Bugallo, Mor Ngom, Meteora Fontana, Fernando Esteso, Maria Anglada Sellarès, Pepa Charro, Xavi Saez, Blanca Star Olivera. Herrialdea: Katalunia (2023). Hizkuntza: Gaztelania. Generoa: Komedia, drama, familia. Iraupena: 98 min.

Lola amonaren ibilerak

Lola Edgar eta Roberten amona moderno eta kaotikoa da. Haien kargu egin zen alaba duela urte batzuk hil ondoren. Hirurak Bartzelonako kanpoaldeko etxe apal batean bizi dira, eta bat

batean haien bizimodu lasaia izugarri aldatzen da. Alzheimerra du Lolak, eta bilobek ez dute amona inoren esku utzi nahi. Haren kargu egingo dira.

Irakurketa kluba

Andoaingo Udal Liburutegiko haur sailak "Irakurketa kluba" zikloaren azken emanaldia antolatu du. Apirilaren 18an izango da, asteartearekin, arratsaldeko 17:30ean hasita. 2018an jaiotako haurrei eta gurasoei zuzentutako ekimena da. Izan ere, haurrak eta helduak elkarrekin aritzeko ekimena da.



UDAL LIBURUTEGIA



Urnieta
udala



Kamio, Lizarralde, Muñoa eta Atxega. AIURRI

"Erik eta Win", bertso eta musika ikuskizuna

Datorren ostegunean, apirilak 20, Bastero Kulturgunean iluntzeko 20:00tan hasita

Erredakzioa ANDOAIN

Bi mutilen arteko laguntasuna kontatzen dute, bertso musika-tu bidez, Ander Lizarralde eta Unai Muñoak: botere harremanak; ispilu aurrean jartzea; txanpon beraren bi aldeak izatea... Gizontasun ereduak. "Beste gizon eredu bat agertu nahi dugu taula gainean, baina ez burutik, erraietatik baizik". Publikoa tarteka barre katartikotan lehertzen da, baina oso gordina da taula gainean gertatzen ari dena... Hainbat kultur jarduera artistiko batzen dira

proiektu honetan, hala nola bertsoak, antzerkia, poesia, musika... Unai Muñoa eta Ander Lizarralde bertsolarietako esperientzia eta egia propioak kontatuko dizkigute gai unibertsal bat aztertuz: harremanak. Doinu eta abesti berriak erakutsiko dizkigute. Hori guztia umorea protagonista dela, Imanol Kamioren piano eta akordeoi soinuekin eta Aitor Atxega baxuaz eta gitarrak lagunduta.

Unai Muñoa aski ezaguna da Andoain aldean, bertso eskolako irakasle prestua baita.



KULTURKLIK

Clown ikuskizuna, Saroben

Francis J Quiros aktorea Cuckoren paperean murgilduko da, maitasunaren ertz ugari lantzeko. Umorez, dramaz, barrez eta negarrez helduko dio gai unibertsalari. Ikusleak maitasuna osatzen duten emozio guztietatik bidaia bat egingo du, Cuckoren jolas eta irudimenaren bidez. Datorren apirilaren 23an izango da, igandearrekin, iluntzeko 19:00tan hasita.



MANDARIN

Filma eta solasaldia

Datorren asteazkenean, Urnietako Jabekuntza eskolaren barnean, "Paris a toda costa", filma eskaingo dute. Arratsaldeko 18:00tan hasiko da, Lekaion. Sinopsia: Mayaren ametsak bete egin dira. Parisen egiten du lan moda aldizkari baterako. Baina dena behera etorriko da, gau batean poliziak atxilotu eta bere jatorrizko herrialdera, Marokora, deportatzen dutenean.

Andoaindarrak protagonista

Andoain kutsuko bi erakusketa kateatuko dira. Apirilaren 20an atek zabalduko ditu "Euskalduna, 100 urte zurekin" izenekoak. Ekainean, Xabier Alkorta, Eduardo Arreseygor, Haizea Brosa, Itziar Gutierrez, Xabier Huitzi, Juanma Lazkano, Aitor Regillaga, Maddi Trutxuelo, Nerea Uralde eta Rosa Zozaya argazkilarien eskutik.



EUSKALDUNA



ELA

Gure Zirkua, sarreren salmenta

Andoaingo Miranda Pasealekuko zelaian izango dira, laster. Bi emanaldietako sarrerak dagoeneko agortu dira. Hauexek eskuragarri daudenak Gurezirkua.eus webgunean: maiatzaren 5ean (19:00); maiatzaren 6an (19:30); maiatzaren 7an (18:00); maiatzaren 12an (19:00); eta maiatzaren 13an (16:30 eta 19:30).

ZORION-AGURRAK



ANDOAIN
Zorionak Irai!
8 urte bete dituzu!
Denbora azkar doala, gozatu dezagun! Mila muxu etxekoan partez!
Maite zaitugu!



ANDOAIN
Naiara Ocon Lertxundi
ZORIONAK NAIARA
Egun zoragarria izan dezazula polita. Asko maite zaitugu. Etxekoak.



ANDOAIN
Zorionak Inge eta Unax!
Apirilaren 10ean Ingek zortzi urte beteko ditu eta Unaxek 21ean hamaika. Orain arte bezain jator jarraitu. Muxuak aitona-amonen partez.

ODOL-EMAILEAK



HURRENGO HITZORDUAK

Maiatzak 8, astelehena.

16:30-20:30.
ANDOAIN, Anbulatorioa. Hitzordua hartzeko: 943 007 884.

Maiatzak 22, astelehena.

16:30-20:30.
URNIETAN, Gaztelekuan. Hitzordua hartzeko: 943 007 884.

MERKATU TXIKIA

LAN ESKAINTZA

Jornada erdian etxeko lanetarako eta sukaldatzeko emakume euskaldun baten bila gabilta. Kotxea beharrezkoa da. **644 116 122**

ALOKAIRU BILA

Donostian hilabete batzuetarako alokairu bila gabiltzan familia bat gara. Gutxi gorabehera 2023ko urritik 2024ko martxora arteko hilabeteetarako behar dugu, eta Amaran, Easo plaza inguruan edota hiriko erdigunean alokatzea gustatuko litzaiguke. Ahal izanez gero 2 gelako etxebizitza beharko genuke. Tel: **639 987 645 / 690 270 468** (Olatz eta Aitor).

PARTE HARTZEKO

diseinua@aiurri.eus | 619 163 537
943 300 732

PROTAGONISTA

"Mugimendu apur bat sortu eta plazari bizia eman nahi diogu"

LEIRE LIZARRIBAR ETA ENEKO IRADI GOIKOPLAZAKO XARMA TABERNA

Taberna zabalik dago, asteartetik, Aterpe jatetxea zenaren lokalean. Denbora luzez proiektuarekin lanean egon ostean, ilusio handiz hitz egin dute

Mikel Arberas ANDOAIN

Nolatan erabaki zenuten Aterpe jatetxea zena berrirezte?

Herriko plaza izanda, lekua oso gustuko genuen. Gainera, denbora luzez langabezian egon gara, hortaz, bitartean, hainbat txoko begiratzen aritu ginen; ostalaritza munduan jarraitzeko asmoa eduki dugu aspalditik. Azkenean, xarma handiko txoko hau ikusita, etxeko hirurak bildu eta, azkenean, Xarma izena bera jartzea erabaki genuen. Xarma gora eta xarma behera, hortxe izenaren jatorria.

Zein da Xarma irekitzeko egin duzun lan prozesua?

Prozesua oso luzea izan da. Ia hiru urtez ibili gara leku batetik bestera; hainbat lokal begiratzen aritu ginen, egoerak aztertuz eta ideiak hartuz. Dena den, gure proiektua izango zenaren ideia nahiko garbi genuen; beraz, Aterpe zenaren lokala ikusi genuenean, buruan genuen guztia bertan irudikatzea lortu genuen. Hau da, lokala egokia iruditu zitzaigun guk prentsaturia genuen guztia egiteko.

Xarman zer eskaintzeko asmoa duzue?

Goikoplazan ez dago aukera handiegirik, eta beraz gehitu



Eneko Iradi, Lide Sobrado Lizarribar eta Leire Lizarribar. XARMA

egingo da edateko edota zerbait hartzeko aukera. Jateko lau gauza emango ditugu, baina eskainiko ditugun horiek goxoak eta erakargarriak izango dira. Edarrei dagokionez, Estrella Galiciaz gain, garagardo bereziak egongo dira. Ardo-etxeekin ere lanean arituko gara eta kafeak Lavazza italiar kafea edateko aukera egongo da. Hortaz, kalitatezko produktuak kontsumitzeko aukera edukiko dute bezeroek.

Janaz eta edanaz gain, bezeroek zer jasoko dute Xarman?

Plaza huts samar zegoela sumatzen genuen, beraz, lokal barnean monologoak, zuzeneko musika eta horrelakoak eskaintzeko asmoa daukagu. Terrazan ere lekua dugunez, ekitaldiak egin nahi ditugu, hots, mugimendu apur bat sortu eta plazari bizia eman nahi diogu.

Diotenez, Lasarte-Oriako Oreka taberna zenaren sukaldaria lan taldean sartu duzue.

Bai, Xabier du izena sukaldariak. Beraren esperientzia edukiko dugun bezala, sukaldean Sara izango dugu; Andoingo Cristian eta Josu ere lan taldean sartu dira, baita Juanma musika arloa kudeatzeko. Beraz, lan talde ona, interesgarria eta esperientziaduna sortu dugu.

Horren famatuak diren hanburgesak egingo al dituzue?

Dударik gabe! Xabierren errezetek horrelako fama edukita eta Andoainera ekarrita, nola ez! Hori bai, hanburgesa famatuak probatu gabe sartu genuen lan taldean, eta, egun hauetan, probatu ostean, ulertzen dugu zergatik herritarrek dituzten horren gustuko Xabierren sorkuntzak.

"EKITALDIK ANTOLATU NAHI DITUGU LOKAL BARNEAN NAHIZ TERRAZAN"



Taberna zabalik dago, Goikoplazan. AIURRI

Babexaren itzulera eta Ongi Etorriren aro berria

Zuberoa kalean dago, baina Andoainen gehienek Doktor Huitzi kalearekin lotzen dute. Urte batzuetako etenaldiaren ostean, taberna zerbitzua eskaintzen hasiko dira berriro. Ez da berriro martxan jarri den negozio bakarra, egun hauetan. Izan ere, etxeko zerbitzua eskaintzen zuen Babexa negozio ezagunak jabe berria du. Hura ere martxan dago.



andoaINDARRA
euskaraz